

DURANGOKO UDALA

AURREKONTU

PARTEHARTZAILEAK 2024



Aurrekontu partehartzaileak: Prozesuaren txostena
2023ko iraila

Aurkibidea

1.-Sarrera	3
2.- Helburuak	5
3.- Prozesuaren diseinua eta plangintza	6
4.- Prozesuaren gauzatzea	11

1.- Sarrera

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua kudeaketa publikorako tresna bat da, zeinaren bitartez herritarrek aurrekontu publikoaren zati bati buruzko erabakiak hartzen dituzten. Helburua da auzotarrek gastuen arloan dituzten eskaera eta kezka nagusiak koordinatzea eta udalerriko urteko aurrekontuan sartzea.

Tokiko eremutik ikusita, aurrekontu parte-hartzaileen esperientziek tokiko demokrazia parte-hartzaileak eraikitzen laguntzen dute, herritarren eguneroko bizitzatik hurbilen dagoen gobernu-maila baita. Hori erronka sozial eta politiko bat da, eta partaidetza eskubidetzat hartzea du abiapuntu

Aurrekontu partehartzaileak prozedura zehatzak dira, eta horien bidez tokiko kudeaketarako proposamenak eraikitzen dira, ordezkartzeko eta partaidetzako demokrazia-mekanismoak bateratzen dituztenak, hiria arlo publikoa eraikitzeko eta herritarren eskubideak baliatzeko gune gisa kokatuz. Era berean, herritarren parte-hartzea bultzatzen laguntzen du, gizarte-sarea aktibatuz, ariketa politikoa demokratizatuz, kudeaketa publikoa modernizatuz eta bizi-baldintzak hobetuz, justizia sozialari dagokionez.

Udal aurrekontu parte-hartzaileak egitearen onuretako batzuk honako hauek dira: kudeaketaren gardentasun eta efizientzia handiagoa, administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzea eta pertsonen esku-hartze zuzena, horrela ordezkartza-partaidetzaren logika gaindituz. Prozesu arautu bat da, eta elkartasuna sustatzen du; izan ere, herritarrek aukera dute udalerrian zer eskatzen den proposatu, ezagutu eta erabakitzeko.

Oraingo honetan, gobernu-taldeak erabaki du erabiltzea 800.000€, 2023ko aurrekontu parte-hartzaileen bidez, herritarrek aukeratutako inbertsioak edo/eta ekintzak egiteko. Horietatik, 200.000€, Durangon, interes orokorreko ekintza edo inbertsio bat egiteko erabiliko dira, Eta gainerako 600.000 euroak berdintasunez banatuko dira esleitutako 6 eremuen artean, hau da, 100.000 € bakoitzean.

Maila horretako proiektu bat egiteko, ezinbestekoa izan da Durangoko Udaleko arduradun eta teknikarien laguntza izatea, eta, jakina, baita herritarrena ere, eta, horrexegatik, guztiei eskerrak eman nahi dizkiogu erakutsitako prestasun eta inplikazioagatik.

Jarraian aurkezten den lanean honakoak jasotzen dira: prozesuaren diseinua eta plangintza, gauzatzea, parte-hartzaileen datuak eta emaitzak.

2.- Helburuak

2.1-Helburu orokorra- bi urterik behin

Durangoko Udalaren 2024ko aurrekontuen atal zehatz bat herritarrekin batera eztabaidatzea eta erabakitzea.

2.2- Helburu zehatzak- bi urterik behin:

1. Herritarren egoera eta beharrak identifikatzea auzo eta lurralde mailan.
2. Udal diru publikoaren erabilerari eta Durangoko interes orokorrari buruzko hausnarketa egitea.
3. Lan komunitarioari balioa ematea eta herriaren ikuspegia sozializatzea, gogoeta egitearekin eta herritarren beharrak identifikatzearekin batera.

2.3- Zeharkako helburuak-bi urterik behin.

1. Kudeaketaren gardentasuna eta gastu publikoaren eraginkortasuna handitzea.
2. Herritarren parte-hartzea bultzatzea, herritarrek gai publikoen kudeaketaren ardura har dezaten.
3. Adimen kolektiboa indartzea, erabakiak hartzeko prozesua demokratizatuz eta bizilagunen arteko elkarrikeria sustatuz.
4. Langile publikoei eta agintari politikoei erantzukizuna eskatzea.
5. Herritarren eta gobernuaren arteko konfiantza handitzea.
6. Komunitatea indartzea, gizarte-ehuna aktibatuz.
7. Kudeaketa publikoa modernizatzea.
8. Bizi-baldintzak hobetzea: Justizia soziala.

3.- Prozesuaren diseinua eta plangintza

3.1 Planteamendu eta diseinu metodologikoa

Durangon, aurrekontu parte-hartzaileen prozesua bi urtean behin egiten da:

Lehenengo urtean ziklo oso bat egiten da (ziklo luzea). Prozesua herritarrek egindako proposamenetatik abiatzen da. Proposamen guztiek lau fase igaro behar dituzte:

1.fasea: EGIN ZURE PROPOSAMENAK	Herritarrek proposamenak aurkezten dituzte
2.fasea: “GUSTATZEN ZAIT”	Herritarrek proposamenak lehenesten dituzte
3.fasea: BIDERAGARRITASUN TEKNIKO	Udaleko teknikariek proposamenak aztertzen dituzte.
4.fasea: BOZKETA	Proposamenen bozketa

Bigarren urtean, zuzenean bozketa-fasera igaroko dira aurreko urteko bozketa-fasera igaro eta **aurrekontu orokorrean sartzeko puntuazio nahikorik lortu ez zuten proposamenak**


Iaz, honako hauekin lotutako proposamenak egin ziren:

- Interes orokorreko gaiak **DURANGO**n bizi diren pertsona guztientzat, gehienez **200.000 euroko** aurrekontuarekin.
- Durangoko **eremu jakin baterako** interesgarriak diren gaiak, proposamen bakoitzeko **100.000 euroko gehieneko** aurrekontuarekin.

Proposamenak honako eremu hauetarako egin ziren:

- | | |
|---------------|--------------|
| 1) SAN ROKE | 4) MADALENA |
| 2) SAN FAUSTO | 5) ERDIALDEA |
| 3) LANDAKO | 6) TABIRA |

Laburpen grafikoa:



Zikloaren bigarren urtean gaude, beraz, lehen zehaztu bezala, bozketa-fasera igaro dira aurreko zikloan udal-aurrekontuan sartzeko behar besteko puntuazioa lortu ez zuten proposamenak.

Aurten, prozesu horretarako aurrekontua 800.000 €-koa izan da, eta honela esleitu da:

- **200.000 €** - Durangon interes orokorreko ekintzak edo inbertsioak egiteko.
 - **600.000 €**- Durangoko auzoetan interesgarriak diren ekintzak edo inbertsioak egiteko.- Auzo bakoitzera 100.000 € bideratuko dira.
- | | |
|--------------------------------|------------------------------|
| • SAN ROKE : 100.000 € | • MADALENA: 100.000 € |
| • SAN FAUSTO: 100.000 € | • ERDIALDEA: 100.00 € |
| • LANDAKO: 100.000 € | • TABIRA: 100.000 € |

Aurreko prozesuan, egin beharreko proposamenik gabe geratu zen eremu edo auzoren bat egon zen; beraz, azkenean, honela banatu da aurrekontua:

Eremua	Aurrekontua
DURANGO	400.000 € = 200.000 € + 100.000 € + 100.000 €
San Roke	Proposamenik ez. Aurrekontu orokorrari gehitzen zaio.
San Fausto	100.000 €
Landako	Proposamenik ez. Aurrekontu orokorrari gehitzen zaio.
Madalena	100.000 €
Erdialdea	100.000 €
Tabira	100.000 €

3.2- Parte hartzeko bideak

Prozesua modalitate misto batean diseinatu da, hau da, online parte hartzeko ildo bat ezarri da (partehartu.durango.eus), eta aurrez aurre parte hartzeko aukera ere zabaldu da.

Aurrez aurreko parte-hartzea honako espazio publiko hauetan lan egiten duten pertsonen lankidetzaren bidez garatu da:

- Tabira kiroldegia
- Turismo Bulegoa
- Herritarrei Arreta Zerbitzuaren bulegoa

Leku horietako bakoitzean tablet bat jarri da botoa emateko, eta behar izanez gero, herritarrek langileen laguntza izan dute.

3.3- Informazioa zabaltzea

Prozesua egiteko datak aurreko ekitaldiekin alderatuta atzeratu egin dira, udal-hauteskundeak eta gobernu-talde berri baten sorrera direla eta.

Prozesu hori udan egin da, eta kanal hauek erabili dira herritarren artean parte-hartzea sustatzeko:

- 1.- 1.- www.partehartu.durango.eus webgunea:** Webgune honetan prozesuari buruzko informazio guztia kontsultatu ahal izan da.
- 2.- www.durango.eus webgunea:** web orri honetan albisteak aurkeztu eta parte hartzeko orrialderako estekak eman dira herritarren parte-hartzea sustatzeko.
- 3.- Sare sozialak:** Udaleko sare sozialak erabili dira prozesuari eta bilakaerari buruzko informazioa emateko.
- 4.- Baliabideak eta prentsa-oharrak:** prozesuari buruzko xehetasunak (datak, parte hartzeko moduak eta datuak...) helarazi zaizkie herritarrei prentsa idatziaren bidez.
- 5.- Megafoniaz edo zuzenean pertsona abisatzea** botoa emateko eta prozesuan parte hartzeko aukera dagoela, tabletak zeuden lekuetan.

Informazioa emateko hainbat kanal eta material erabili badira ere, horien eragina zehazteke dago.. Ildo horretan, kontsultatutako pertsona batzuek uste dute informazioa hobeto egokitu behar dela parte har dezaketen herritarren profiletara, prozesuari buruzko informazioa modu pedagogikoan azalduz, parte hartzeko datak eta bitartekoak azpimarratuz.

3.4- Erabilitako baliabideak

Eskura dauden baliabideek, neurri batean behintzat, prozesuak plangintzari dagokionez parametro egokiei erantzuten diela berma dezakete.

Kontuan hartu behar dira bai prozesua sustatzeko lan egin duten pertsonen kopurua, bai horretara bideratutako baliabide ekonomikoak.

Oraingo honetan, aurreko prozesuan erabilitako kartelak eta gainerako materialak erabili dira, eta, beraz, ez da baliabide ekonomiko garrantzitsurik behar izan.

Prozesua gauzatzeko zeharkako barne-lana egin duten hainbat udal-zerbitzuren inplikazioa behar izan da. Hainbat arlok hartu dute parte bai maila teknikoan, bai politikoan. Zehazki:

- Gobernu-taldea
- Informatika arloa
- Modernizazio arloa
- Komunikazio arloa
- Urbanismo arloa-bulego teknikoa
- Kultura arloa
- Erakunde autonomoak

Zerbitzu horiek aurrekontu parte-hartzaileak koordinatzeko eratutako Batzorde Tekniko baten bidez koordinatu dira.

4.- Prozesuaren gauzatzea

Partaidetza-prozesu bat herritar guztiei ireki dakieke, edo parte-hartzaileen talde mugatu bati mugatuta egon daiteke. Kasu honetan, prozesu ireki bat garatu da, eta honako hauek nabarmendu behar dira:

- Parte hartzeko adina. Durangon erroldatutako 14 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izan dute; partaidetza-aurrekontuen prozesu gehienetan 16/18 urte izaten dira.
- Herritar guztiek parte hartu ahal izan dute, elkarre edo erakundeetako kide izan ala ez. Hau da, Durangon bizi diren pertsonak elkarre-filiaziorik gabe inplikatzeko nahia egon da, eta hori nabarmentzekoa da beste eredu murriztaileago batzuen aurrean.

Bestalde, prozesua behar bezala garatzeko behar den denbora hartu behar da, parte hartzeko denborak jorratutako gaiaren konplexutasunarekiko proportzionalak izan behar baitira. Prozesu honetan programatutako epeak honako hauek izan dira:

- **BOZKETA FASEA:** uztailaren 17tik abuztuaren 20ra
- **PROPOSAMENAK AURREKONTUAN SARTZEA:** 2023ko iraila
- **JARRAIPEN FASEA:** 2024. urtea eta ondorengoak

4.1- BOZKETA FASEA (uztailaren 17tik abuztuaren 20ra)

Uztailaren 17an, bozketa-fasera igaro ziren proposamenen zerrenda argitaratu zen, guztira 13 proposamen.

Herritar bakoitzak, gehienez, hiru proposamen bozkatu ahal izan zituen 3, 2 eta 1 puntuko sistemaren bidez. 2024ko udal- aurrekontuan puntu gehien lortu dituzten proposamenak sartuko dira.


A) Parte-hartzaileei buruzko datu estatistikoak (sexuaren eta adinaren arabera)

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA	%
Emakumeak	4	29	226	18	277	51%
Gizonak	6	50	187	18	261	49%
Totala	10	79	413	36	538	
ehunekoa	%2	%15	%76	%7		


BOTOAK

1.278

a.1- Sexuaren arabera parte-hartzea bozketa fasean



a.2- Parte hartzea, adinaren arabera, bozketa fasean



4.2- Proposamenen emaitza bozketa-fasean

Proposamenak lortutako puntuen arabera daude antolatuta.

DURANGO – GEHIENEZKO AURREKONTUA: 400.000 €

Proposamena	Aurrekontua	Boto kopurua	Puntu kopurua
1001- Zuhaitz gehiago	100.000 €	256	559
1803- Zebrabideen eta bidegorrien inguruan ikusgaitasuna hobetzea	200.000 €	220	445
1405- Saskibaloia kantzak eta frontoiak	200.000 €	167	381
701- Parke estalia Durangon	180.000 €	136	300
2201- Frontoi irekiak sortu	200.000 €	122	271
1601- Komun publiko gehiago	160.000 €	127	247
2207- Intxaurrendoko astronomia proiektua berriz martxan jartzea	75.000 €	105	197
903- Jolasguneak umeentzat	200.000 €	74	142
1605- Garai jauregiaren harresia eta atzealdeko parkearen egokitzapena	150.000 €	71	120

1) SAN ROKE:

Auzo honetan ez dago bozkatu gabe dagoen proposamenik, beraz, eremu honetarako erabiliko ziren 100.000 euroak Durangoko interes orokorreko proposamenetarako aurrekontura gehituko dira.

2) SAN FAUSTO- GEHIENEZKO AURREKONTUA: 100.000 €

SAN FAUSTON esleitutako aurrekontuari esker, **bi proposamenak egin daitezke**, eta, beraz, 2024ko aurrekontuan sartuko dira, **BOZKETA-FASERA IGARO BEHARRIK GABE**.

Proposamena	Aurrekontua
1204- Bizikleta garbigunea San Fauston	20.000 €
1702- Fauste kaleko oinezkoen ibilbideari jarraipena ematea	60.000 €

2) LANDAKO :

Auzo honetan ez dago bozkatu gabe dagoen proposamenik, beraz, eremu honetarako erabiliko ziren 100.000 euroak Durangoko interes orokorreko proposamenetarako aurrekontura gehituko dira.

4) MADALENA- GEHIENEZKO AURREKONTUA: 100.000 €

MADALENAN esleitutako aurrekontuari esker, **dagoen proposamena egin daiteke**, eta, beraz, 2024ko aurrekontuan sartuko da, **BOZKETA-FASERA IGARO BEHARRIK GABE**.

Proposamena	Aurrekontua
1504- Umeek jolasteko parkea-Madalenan	100.000 €

5) **ERDIALDEA**- GEHIENEZKO AURREKONTUA: **100.000 €**

Proposamena	Aurrekontua	Boto kopurua	Puntu kopurua
1202- Kurutziagako iturria konpondu	100.000 €	79	140
1402- Sanagustinalde-Bidegorri gehiago	50.000 €	75	124

6) **TABIRA**- GEHIENEZKO AURREKONTUA: **100.000 €**

Proposamena	Aurrekontua	Boto kopurua	Puntu kopurua
2208- Hilero kirol eta kultura ekintzak auzoan	25.000 €	80	133
2512- Tabirako pasabidea konpondu	100.000 €	66	124

4.3- Proposamenak udal-aurrekontuan sartzea

2024ko ekitaldiko udal-aurrekontuan honako proposamen hauek sartuko dira:

- Bozketa-prozesuan puntu gehien lortu dituzten proposamenak, aurrekontua agortu arte.
- Aurreko urteko bozketa-fasera igaro ziren proposamenek ez zuten aurrekontu orokorrean sartzeko adinako puntuaziorik lortu, baina zuzenean 2024ko udal-aurrekontura pasatu dira, bideratutako aurrekontuarekin egin daitezkeelako (San Fausto eta Madalenakoak dira horiek)

Beraz, bozketaren emaitza kontuan hartuta, 2024ko udal aurrekontuan honako proposamen hauek sartuko dira:

PROPOSAMENA	AURREKONTUA
DURANGO – Zuhaitz gehiago.	100.000 €
DURANGO – Zebrabide eta bidegorrien inguruan ikusgarritasuna hobetzea.	200.000 €
DURANGO – Saskibaloia kantzak eta frontoiak.	200.000 €
SAN FAUSTO - -Bizikleta garbigunea San Fauston	20.000 €
SAN FAUSTO - Fauste kaleko oinezkoen ibilbideari jarraipena ematea.	60.000 €
MADALENA - Umeek jolasteko parkea Madalengan.	100.000 €
ZONA CENTRO - Kurutziagako iturria konpondu.	100.000 €
TABIRA - Hilero kirol eta kultura ekintzak auzoan.	25.000 €


4.4- Proposamenen gauzatzearen jarraipena

Ekintza horien jarraipena egin ahal izango da www.partehartu.eus web orrian:
“Aurrekontu parte-hartzaileak-proiektuak jarraitu- informazio hori hiru hilean behin eguneratzen da.



Atal honetan, aurrekontu parte-hartzaileen prozesuak egin ondoren egin diren ekintza guztiak kontsulta daitezke, eta hiru taldetan sailkatuta daude:

- Aribidean daudenak
- Amaitutakoak
- Hasi gabe daudenak



Partehartu DURANGO!

PROIEKTUAK JARRAITU

Testua

EGOERA

EGOERA

JATORRIA

JATORRIA

Bilatu

ARIBIDEAN

Titulua
AP 2023- MADALENA- Madalenako Ermita- erabilera sozialak, kulturalak ...
AP 2023- DURANGO - Trenbidearen bide zaharra errekupe...
AP 2022- Bidegorriak elkartu eta luzatu
AP 2020- Hiri baratzeak sortzeko diseinurako proiektua burutu.

AMAITUTA

Titulua
AP 2021- Zebrabideetan objektu-detekttagailuren bat instalatzea, oinezko bat pasatzen ari denean, errepidearen bi aldeetan led argi batzuk piztu ...
AP 2021- Durango Berdeago: oinezkoentzat eta bizikletentzat kale gehiago jarri eta oinezkoentzat jarri ezin daitezkeen kaleetan espaloiak handi...